



berria Taldearen zerbitzu enpresa

([https://www8.smartadserver.com/click?
imgid=27797910&insid=10644148&pgid=1356874&fmtid=72131&ckid=5185739476508180335&uii=254561033862550354&acd=1642683656993&opid=d5fd64638fac7&opdt=1642683656895&pubid=20&tmstp=5995136339&tgt=%24dt%3d1t%3b%24dt%3d1t%3b%24hc&systgt=%24qc%3d1311819901%3b%2459f_t0eY1P9_r_v-Qzjhfdt-8F2L_W_L0X42E7NF36pg4KuR4Eu3LBIQNIHMHUTUmwaokVrzHsak2MryNKJ7LEmnMZO2dYGHtPn91TuZKY7_78_fz3z-v_t_-39T37-3_3_5_X---_e_V399zLv9_39nN_9v-CDYBJhqXkAXYljgybRpVCiBGFYSHQCgAooBhaJrABgcFOysAj1BCwAQmoCMCIEGIKMGAQACAQBIREBIAWCARAEQCAAEAKkBCAAiYBBYAWBgE/prezioa-igotzea-erabaki-behar-izan-du-sektoreak.htm&cappid=5185739476508180335&go=http%3a%2f%2fwww.bidera.eus](https://www8.smartadserver.com/click?imgid=27797910&insid=10644148&pgid=1356874&fmtid=72131&ckid=5185739476508180335&uii=254561033862550354&acd=1642683656993&opid=d5fd64638fac7&opdt=1642683656895&pubid=20&tmstp=5995136339&tgt=%24dt%3d1t%3b%24dt%3d1t%3b%24hc&systgt=%24qc%3d1311819901%3b%2459f_t0eY1P9_r_v-Qzjhfdt-8F2L_W_L0X42E7NF36pg4KuR4Eu3LBIQNIHMHUTUmwaokVrzHsak2MryNKJ7LEmnMZO2dYGHtPn91TuZKY7_78_fz3z-v_t_-39T37-3_3_5_X---_e_V399zLv9_39nN_9v-CDYBJhqXkAXYljgybRpVCiBGFYSHQCgAooBhaJrABgcFOysAj1BCwAQmoCMCIEGIKMGAQACAQBIREBIAWCARAEQCAAEAKkBCAAiYBBYAWBgE/prezioa-igotzea-erabaki-behar-izan-du-sektoreak.htm&cappid=5185739476508180335&go=http%3a%2f%2fwww.bidera.eus))

Berria

Izan
BERRIALaguna

(<https://www.berria.eus/berrialaguna/>)

Osteguna
2022ko

Hasi saioa (<https://www.berria.eus/berrialaguna/>)

Osteguna, 2022ko urtarrilak 20

Izan BERRIALaguna (<https://www.berria.eus/berrialaguna/berrialaguna>)

Hasiera
(<https://www.berria.eus/>)

Bizigiro
(<https://www.berria.eus/bizigiro/>)

Bizigiro OLATZ MITXELENA
(<https://www.berria.eus/bizigiro/>)

«Sagardoaren prezioa igotzea erabaki behar izan du sektoreak»

Mitxelenak esan du sagardotegi garai "berezia" datorrela aurten; izan ere, lehen asteetan behintzat, ezingo da zutik kontsumitu. Mahaira ekarriko dute sagardoa, pitxerretan edo botila gardenetan, iaz bezala.

Miren Garate -
Gipuzkoako Hitza



([https://www.berria.eus/egilea/Miren_Garate -](https://www.berria.eus/egilea/Miren_Garate_-_Gipuzkoako_Hitza)

[Gipuzkoako_Hitza](https://www.berria.eus/egilea/Miren_Garate_-_Gipuzkoako_Hitza)) (<https://twitter.com/@MirenGarate>)



📷 NAGORE LEGARRETA

(https://www.berria.eus/argazkiak_jarraia/egunekoak/2022-01-17/jarraia208343.jpg).

2022ko urtarrilak 17 09:19



(<https://www.facebook.com/sharer/sharer.php?>



Kozinatu eta dastatu
Iker Markinez sukaldariak
egunkarian argitaratu dituen
errezetak zeure etxean



(https://www8.smartadserver.com/click?imgid=27797899&insid=10644138&pgid=1bde4-4d90-aa49-19e56b6f4319&opdt=1642683656895&publ59f_t0eY1P9_r_v-Qzjhfdt-8F2L_W_L0X42E7NF36pq4KuR4Eu3LBICv_t_-39T37-3_3_5_X---e_V399zLv9_39nN_9v-CDYBJhgXkAXYljgybRpVCiBGFYSHQCg,preziosa-igotzea-erabaki-behar-izan-du-sektoreak.htm&cappid=518573947650818markinezen-errezetak%2f)

Gehien irakurriak

(<https://www.berria.eus/iraki>)

[u=https://www.berria.eus/albisteak/208343/sagardoaren-prezioa-igotzea-erabaki-behar-izan-du-sektoreak.htm](https://www.berria.eus/albisteak/208343/sagardoaren-prezioa-igotzea-erabaki-behar-izan-du-sektoreak.htm))  [_\(https://twitter.com/share\)](https://twitter.com/share)
 [0](https://www.berria.eus/albisteak/208343/sagardoaren-prezioa-igotzea-erabaki-behar-izan-du-sektoreak.htm#disqus_thread)
[. \(https://www.berria.eus/albisteak/208343/sagardoaren-prezioa-igotzea-erabaki-behar-izan-du-sektoreak.htm#disqus_thread\)](https://www.berria.eus/albisteak/208343/sagardoaren-prezioa-igotzea-erabaki-behar-izan-du-sektoreak.htm#disqus_thread) 
[. \(https://www.berria.eus/berrialaguna/login\)](https://www.berria.eus/berrialaguna/login) 

Aurtengo sagardoa “izaera handikoa” izango dela iragarri du Olatz Mitxelenak (Astigarraga, 1991), Euskal Sagardoa sektoreko teknikariak, eta sagardotegiak “espazio seguruak” direla nabarmendu du. Protokolo bat baino gehiago dituzte prest dagoeneko, etxeko lanak eginda izateko eta sektoreari ziurtasuna emateko. Iaz bezeroek erakutsitako babesak ere ematen die indarra: “Duela hiru urte esan izan baligute zutik kontsumitu gabeko sagardotegi garai bat edukiko genuela, ez genukeen sinetsiko, baina jendearen erantzuna sekulakoa izan zen”.

Nolako sagardotegi garaia dator?

Berezia. Orain dela pare bat aste pentsatzen genuen zutik kontsumitzea posible izango zela, baina urtarrilaren 28ra arte behintzat horretarako aukerarik ez da izango. Zenbait protokolo ditugu prestatuak, lanak aurreratuta edukitzeko, eta egoeraren arabera bat edo beste bat aktibatzeke. Ziurtasuna eman nahi diogu sektoreari. Hasieran, kontsumoa eserita izango da, eta sagardoa mahaira ekarriko dugu. Funtzionamendua iazkoaren oso antzekoa izango da: sagardotegi batzuek botila gardenak erabiliko dituzte, eta beste batzuek, pitxerrak; kasu batzuetan bezeroak

1 **Korrikaren lekukoak badu nondik nora ibili**
(https://www.berria.eus/albisteak/lekukoak-badu-nondik-nora-ibili.htm)

JULEN APERRIBAI
(HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/JULEN_APERRIBAI)

2 **Pro... zer?**
(https://www.berria.eus/pape01-20/pro-zer.htm)

ANDONI EGAÑA
(HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/ANDONI_EGANA)

3 **Inozoa ez**
(https://www.berria.eus/pape01-20/inozoa-ez.htm)

ONINTZA ENBEITA
(HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/ONINTZA_ENBEITA)

4 **ELAk salatu du Jaurlaritzak beste zerrenda bat erabili duela hezkuntzako ordezkapenetarako**
(https://www.berria.eus/albisteak/salatu-du-jaurlaritzak-beste-zerrenda-bat-erabili-duela-hezkuntzako-ordezkapenetarako.htm)

UNAI ETXENAUZIA
(HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/UNAI_ETXENAUZIA)

altxatu ahal izango du upeltegira betetzera, eta beste batzuetan sagardogileak ekarriko du; etxe bakoitzak ikusiko du zein duen berarentzat lanerako modurik errazena eta segurua.

Esan duzu hasieran behintzat iazkoaren antzekoa izango dela funtzionamendua. Zer moduz moldatu zineten iaz?

Oso eskertuta gaude jendearen erantzunarekin. Duela hiru urte esan izan baligute zutik kontsumitu gabeko sagardotegi garai bat edukiko genuela, ez genukeen sinetsiko, baina jendearen erantzuna sekulakoa izan zen. Animo asko jaso genituen, eta asko eskertu ziguten sagardo berria dastatu ahal izateko aukera ematea eta ilusio hori bizirik mantentzea.

Nola bizi da sektorea gaur egungo egoeran?

Neke puntu batekin. Ulertzen dugu geure aldetik ere jarri behar dugula kutsatzeak ekiditeko, baina uste dut jada asko samar jartzen ari garela, oso ondo ulertu gabe zer momentutan erabaki den kutsatzeak ostalaritzan gertatzen direla. Guk argi daukagu gure protokolo guztietan sagardotegiak espazio seguruak direla, bai mahaika altxa daitekeenean, bai zutik talde txikitan kontsumi daitekeenean, beti bermatzen dugulako 1,5 metroko distantzia eta musukoaren erabilera.

Zein ezaugarri izango ditu aurtengo sagardoak?

Izaera handiko sagardoa dator, urtetik urtera sagardogileek lan handia egiten dutelako aurreko urteko markak hautsi eta sagardo hobeak izateko.

5 Nagusitasunez irabazita egin du aurrera
(<https://www.berria.eus/pape01-20/nagusitasunez-irabazita-egin-du-aurrera.htm>)

JON ANDER DE LA HOZ
(https://www.berria.eus/egilea/jon_ander_d)

Astekaria buletina
Irakurri gabe utzi ezin diren artikuluak

Jaso nabarmenduriko albisteak, astelehenero, zure helbide elektronikoan.

HARPIDETU!

[Berria.eus/buletinak/](https://www.berria.eus/buletinak/)

berria **zuk badakizulako**



(https://www8.smartadserver.com/click?imgid=27797892&insid=10644136&pgid=199fb-41f9-84b6-715022893622&opdt=1642683656895&pu59f_t0eY1P9_r_v-Qzjhfdt-8F2L_W_L0X42E7NF36pq4KuR4Eu3LBICv_t_-39T37-3_3_5_X---e_V399zLv9_39nN_9v-CDYBJhqXkAXYljgybRpVCiBGFYSHQCg/)

Sagar urtea izan da 2021a, baina ahal zen guztia ekoitzi da, edo, jakinda agian sagardotegiek eta ostalaritzak ezingo zutela ohi bezala funtzionatu, neurtu egin da ekoizpena?

prezioa-igotzea-erabaki-behar-izan-du-sektoreak.htm&cappid=518573947650818

Neurtu egin da. Hala ere, nabarmenduko nuke ekoizpen neurtu horretan bertako sagarraren erabileraren alde egin dutela gehienek. Kopuruz, bertako sagarra dextente sartu da sagardotegietan.

Orain hasiko da sagardotegi garaia. Hala ere, gero eta gehiago dira urte osoan zabaltzen dutenak, ezta?

Bai, gero eta gehiago dira urtean zehar zabaltzen duten sagardotegiak, eta eskaintza zabalagoa ematen dutenak ere bai. Adibidez, eskaintza horri lotuta, hainbat bisita eta irteera mota dauzkagu, eta, hemengo bezeroek eskatuta, beste produktu bat estreinatuko dugu aurtengo sagardotegi sasoian: dastatze gidatuak sagardotegietan.

Zer eskainiko duzue?

Etxe bakoitzak dituen produktuak dastatu ahal izango dira, eta oinarria izango da jatorri izena. Jatorri izenaren bereizgarriak ezagutzeko, sagar barietateak ezagutzeko eta hemengo bezeroei bestelako eskaintza bat emateko balioko dute dastatze gidatuek. Sagardotegira joandakoan, otorduaren aurretik egingo dira dastatze gidatuak, botilatik, edo, ahal denean, upeletik.

Bost urte dira Euskal Sagardoa jatorri izena sortu zenetik. Zer balorazio egiten duzue?

49 sagardotegi egongo dira aurten jatorri izenaren barruan. Lehen bost urteak bete ditu, eta sektorea gero eta ilusio handiagoz dago horrekin, lortzen duelako sektorearentzat inportanteena dena: bertako sagarraren kalitatea eta profesionaltasuna. Lortzen du lehen sektore bateratu bat izatea, lehen sektore profesional bat edukitzea eta ekonomia zirkularra ixtea.

Zer erronka nagusi ditu?

Aurten sagardo sektoreak plan estrategikoa sortu du, hiru oinarri nagusiren gainean: sagarra, sagardoa eta sagardotegia. Plan estrategiko horretan atal bakoitzerako eginkizunak markatu ditugu, eta sektore osoak hiru atal horietan aurrera egiteko konpromisoa hartu du. Helburua da sektore osasuntsu bat izatea hemendik urte luzeetara.

Lehen sektorearen egoera larriaren berri ematen ari dira nekazarien sindikatuak. Zuei ere eragin al dizue ekoizpen kostuak igo izanak?

Bai, erabaki batzuk hartu behar izan ditugu, eta, tartean, sagardoaren prezioa igotzea erabaki behar izan du sektoreak: produkzio kostuak igo egin dira, eta sagardoaren prezioa ere %10-%20 artean igoko da. Prezioen igoera bat planteatzen da, edo ito egingo da sektorea. Marjina eskaseko produktuak dira gureak, oso prezio merkea dutelako, eta horrek, azkenean, ez dizu aukerarik ematen profesionalki aurrera egiteko. Elementu guztiak garestitu dira: kartoia, plastikoa, kortxoa...

Sareko BERRIAzalea:

Irakurri berri duzun edukia eta antzekoak zure interesekoak badira, eskari bat egin nahi dizugu: *Berria* diruz babestea.

Zuk eta zure gisako sareko milaka irakurlek egindako ekarpenarekin, eduki gehiago eta hobeak sortuko ditugu. Eta, zuekin osatutako komunitateari esker, publizitateak eta erakundeen laguntzek bermatzen ez diguten bideragarritasuna lortuko dugu.

Euskarazko kazetaritza libre, ireki eta konprometitua eskaini nahi dizugu egunero; bizi zaren munduaren eta garaiaeren berri ematen segitu.

Izan BERRIAlaguna >
(<https://www.berria.eus/berria>)

Albiste gehiago




Hirian sakabanaturik egin dute Donostiako haur danborrada

(<https://www.berria.eus/albisteak/208589/hirian-sakabanaturik-egin-dute-donostiako-haur-danborrada.htm>)

ALEX URIARTE ([HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/ALEX_URIARTE](https://www.berria.eus/egilea/ALEX_URIARTE))

Bost barrutietan aritu dira haurrak, udalak Alderdi Ederreko ekitaldia eta helduen danborrada bertan behera utzi ostean.



Gizakiak, txerri organoak amets

(<https://www.berria.eus/paperekoa/1934/030/001/2022-01-20/gizakiak-txerri-organoak-amets.htm>)

JAKES GOIKOETXEA

([HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/JAKES_GOIKOETXEA](https://www.berria.eus/egilea/JAKES_GOIKOETXEA))

David Bennettek astebete baino gehiago darama bizirik txerri baten bihotzarekin. Transplante hori mugarria izan da, baina ikerketa asko falta da prozedura orokortzeko.



«Consonni kreatura mutante bat da»

(<https://www.berria.eus/paperekoa/1886/032/001/2022-01-20/consonni-kreatura-mutante-bat-da.htm>)

AMAIA IGARTUA ARISTONDO

([HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/AMAIA_IGARTUA_ARISTONDO](https://www.berria.eus/egilea/amaia_igartua_aristondo))

Consonnik 25 urte bete berri ditu. 2012tik argialetxea ere bada, eta Murrek dio horrek «autonomia» eman diela. Andrazko idazle euskaldunak eta zientzia fikzio feminista itzuli dituzte, besteak beste.

Antzinaroko dieta eta metagenomika

(<https://www.berria.eus/paperekoa/1977/031/001/2022-01-20/antzinaroko-dieta-eta-metagenomika.htm>)

MIKEL IRIONDO ORENSANZ

([HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/MIKEL_IRIONDO_ORENSANZ](https://www.berria.eus/egilea/mikel_iriondo_orensanz))

Astekaria

Asteko gai hautatuekin osatutako albiste buletina. Astelehenero, ezinbesteko erreportajeak, elkarrizketak, iritziak eta kronikak zure posta elektronikoan.



[Pribatutasun politika \(https://www.berria.eus/legeinformazioa#pibatutasuna\)](https://www.berria.eus/legeinformazioa#pibatutasuna),
eta [Lege informazioa \(https://www.berria.eus/legeinformazioa\)](https://www.berria.eus/legeinformazioa) irakurri ditut
eta onartzen ditut



No soy un robot

reCAPTCHA
[Privacidad](#) - [Términos](#)

idatzi zure posta elektronikoa

Harpidetu

0 Comentarios Berria Política de privacidad de Disqus

Favorite

Tweet

Compartir

Ordenar por l



Sé el primero en comentar...

INICIAR SESIÓN CON

O REGISTRARSE CON DISQUS

Nombre

Sé el primero en comentar.



Berria.eus - Euskal Editorea SM
Telefonoa: 943-30 40 30
Faxa: 943-59 01 72
Webgunea: webgunea@berria.eus
Publizitatea: publi@bidera.eus
Harpidetza: harpidetza@berria.eus

JARRAITU

SAILAK

LEGEA

 Facebook (https://www.facebook.com/Berria.eus/)	Gizartea (https://www.berria.eus/gizarte/)	Kirola (https://www.berria.eus/kirola/)	Lege Informazioa (https://www.berria.eus/lege-informazioa/)
 Twitter (https://twitter.com/berria)	Politika (https://www.berria.eus/politika/)	Kultura (https://www.berria.eus/kultura/)	Pribatutasun politika (https://www.berria.eus/lege-pribatutasun-politika/)
 Instagram (https://instagram.com/berria_eus)	Mundua (https://www.berria.eus/mundua/)	Bizigiro (https://www.berria.eus/bizigiro/)	Cookieak (https://www.berria.eus/lege-cookieak/)
 Youtube (https://www.youtube.com/channel/UCBw1v10)	Ekonomia (https://www.berria.eus/ekonomia/)	Ibilkari (https://www.berria.eus/ibilkari-kanalak/)	Zozketak (https://www.berria.eus/lege-zozketak/)
 RSS (https://www.berria.eus/rss/)	Iritzia (https://www.berria.eus/iritzia/)	Infografiak (https://www.berria.eus/infografiak/)	Lan eskaintzak (https://www.berria.eus/lege-lan-eskaintzak/)
	Berria TB (https://www.berria.eus/berria-tb/)	Argazkiak (https://www.berria.eus/argazkiak/)	Lizentzia (https://www.berria.eus/lege-lizentzia/)
			Publizitatea (https://www.berria.eus/lege-publizitatea/)
			Bidera zerbitzuak (https://www.bidera.eus/)
			MIDAS Media (https://www.berria.eus/lege-midas-media/)
			Media_2020.pdf (https://www.berria.eus/lege-media-2020.pdf)

(<http://www.gipuzkoa.net>) (<http://www.uzei.eus/online/idite/>)

(<http://www.emakunde.euskadi.eus/enpresa-erakundeak/-/informazioa/lankidetza-erakundea/>)